

ERTZAIÑAK

Pozet ikusten dogu aspaldion gure bideak zaintzen eta beste arazo askotan geure erritar doguzan Ertzaiñen laguntza. Lengo bide-zaiñen eta guardien jorkabideagaz aspertuta gengozan eta orain be noizean bein bideetan aurkitzen doguzanean, euren arrokeria ez dabela urritu ikusten dogu.

Ez dogu uste izan bear, Ertzaiñak geure-geureak doguzalako, ez gaituela zigortuko, geiago oraindiño, iñoz erru barik zigortuko gaituela be jazo leiteken gauzea da, eurak be gizonak dira eta uts egin leikee-ta. Oñarri lez au artu bear dogu: Askatasuna gauza ederra dala, baiña guztion askatasuna zaiñtzeko, legeak eta legea bete-erazoten dabenak bear dirala.

*

Legea ta askatasunari mugak ipintea onartzeko, norberak bear dau eldutasun bat erritar lez, eta errian be legeak egokiro egin bear dira, baiña erri-bizitza ezíña litzake lege barik eta legea bete-eragiten dabenen lana barik.

Legea bete ez dalako salakuntza egiten dauana, geure giroan bizi dan gaztea danean, errezago onartzen da, orregaitik aurrerapen aundia izan da ertzaintza gure errietara zabaltzea.

Eta oraindiño zabaltze au oso-osoan eginda ez dagoan ezkerro, pozik entzuten dogu arlo orretan dato-rran edozen barri.


Illuntasun bat agiri da etorkizunean, edo, obeto esateko, suzmo txar bat daukagu: Izukeriaren aurkako ardurak artzen dabezenean, zer egingo dabe izukeri-bidetik diarduen euskaldunak? Ertzaiñak be bardin eraso? Ori bai izango litzakela gure bideak eta etxeak odolez gorritzeko bidea, ori bai gure arerioak pozik ikusiko leukeen gauzea. Ez al da jazoko olakorik! Gure gazteak alkar ilten ikustea, samintasun barria litzake gure erriarentzat eta orain arte izan díran samintasun guztiak baiño samiñagoa.

* * *

Laiño illun ori sortaldean agertu arren, ertzaiñak gure erriarentzat itxaropen aundia dira eta zalantza barik, geroago erta obeto egingo dabe euren lana, erritarren eskubideak zaintzen dírala, etxeetara sartu bear dabenean, esaterako, bear díran baímenak ekarrita, etxeetan artzen dabezan gauzen barriak argi emonda, lekukoak bear dan lez artuta... eta or izango dira beste eskubide asko eta asko zaindu-bearrekoak. Erriaren itxaropena díra ba ertzaiñak, eta etorkizunean erriaren poza be izan bear dabe.

Olazar'tar Martin'ek.

Neure idazlan Bilduma



Kamiñazpíren liburu ederra. — Bizkaiera garbi ederrez egiña. — Bizitzako jakingarri ederrak.

Euskereari buruz ikasgai arduragarriak. — Fedea ta abertzaletasuna alkartuta.

Euskal-folklore ta gízarte arazoak. — Arraintza. — Kontakizunak eta...